



ELKARRIZKETA SOZIALERAKO MAHAIA **EUSKAL LANGILEOK EZ DUGU IRUZURRIK ONARTUKO**

Hilzorian zegoen elkarrizketa sozialerako mahaia berpizteko borondatearekin uztailaren 22an, uda-garai betean, Eusko Jaurlaritzak, Confedebak eta CCOO eta UGTk negoziazio kolektiboa eta elkarrizketa sozialaren instituzionalizazioaren inguruko bi akordio sinatu zituzten. Euskal langileriarik bizkar eman eta patronalaren alde egiteko akordioak dira biak.

Beste behin Urkulluren Gobernuak iruzur egin dio euskal langilegoari. Euskal esparruaren aldeko akordioa dela dioten arren, praktikan, kontrako norabidean doaz, Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aurkako eraso zuzena da.

Sinatzaileen ibilbidea ikusi besterik ez dago akordio honen atzean ezkututzen dena ulertzeko. Confedebak euskal langileriaaren prekarietatean sakontzeko akordioa nahi zuen eta lortu du. Patronalak ez ditu bertako hitzarmenak blindatu nahi, ez du negoziazio kolektiborako marko propiorik nahi. Alderantziz, negoziazio kolektiboa erabili nahi du lan harreman eredu antidemokratikoan sakondu eta prekarietatea hedatzeko eta bide horretan aurrera egiteko aliatuak baditu.

Eusko Jaurlaritzak patronalaren aldeko hautua egin du langileoi bizkar emanaz. Eredu eta proiektu ekonomiko neoliberal berbera babesten dute biek, prekarietatean sakondu eta garapen ekonomikoa kaltetzea dakarren ereduak. Akordioarekin, beste behin ere, agerian geratu da EAJK Confedebakiko duen menpekotasun jarrera.

Eta zer esan CCOO eta UGTk erakutsitako jarreraren inguruan. Zinismo hutsa da hemen, bertako hitzarmenen salbatzaile gisa agertzen diren bitartean, Madrilen euskal esparrua erasotzea.

Erabaki antidemokratikoak, prekarietatean sakontzeko

Euren diskurtsoekin akordioaren benetako helburua ezkutatzeko saiatu dira sinatzaileak. Estatuko ereduak inportatu nahi dute, prekarietate gehiago dakarren lan harreman ereduak. Lan kostuen etengabeko merkatzean oinarritzen den lan harreman eredu batek ondorio larriak dakartza langileontzat, eta gainera, ezinezko egiten du berrikuntza eta balio erantsian oinarritzen den garapen ereduak eraikitzea.

Euskal gehiengo sindikala oztopo bat da euren helburuetan aurrera egiteko. Patronalak gure ilegalizazio saiakerarekin lortu ez zutena lortu nahi dute oraingoan ere, konfrontaziozko sindikalizazioaren paretik kentzea alegia, gutxiengo sindikala erdigunean jarriz, negoziazio kolektiboa erabat desitxuratuz, hitzarmenak gutxiengoan sinatuz. Gehiengo sindikala baztertzeko erabakia erabat antidemokratikoa da eta ondorio larriak izango ditu, besteak beste, elkarrizketa sozialaren erakundetzea CCOO eta UGTren babesa eta menpekotasuna finantzaketa bidez erositzea.

Eredu propioaren aldeko borroka sendotzera goaz

LAB sindikatua negoziazio kolektiborako euskal esparruaren defentsan berresten da. Negoziazio kolektiboa lan-harremanetarako euskal esparruaren oinarrietako bat da eta estatuzkoaren aurka blindatu egin behar dugu.

Hitzarmenaren desblokeoaren aldeko apustua egiten dugu, noski, baina ez edozein prezioan, ez edozein hitzarmen, edukiak dituzten hitzarmenak, baizik, prekarietatearen kontra, soldaten eta lan eskubideen defentsan.

Arazo politiko baten aurrean gaude eta eman diezaiogun tamainako erantzuna, eraso antidemokratiko hau ozen salatu eta Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren aldeko borrokan sakonduz. Bide honetan euskal esparruaren alde gaudenon artean indarrak batzeko unea dela deritzogu.

Zentzu honetan, datorren irailaren 20an, 10:30ean, Gasteizko Correos plazatik abiatuta mobilizatuko gara. Euskal langileok ez dugu iruzurrik onartuko eta kalean izango gara!



MESA DE DIALOGO SOCIAL LA CLASE TRABAJADORA VASCA NO ACEPTA ENGAÑOS

El 22 de julio, con la mesa de diálogo social prácticamente desactivada, en plena época estival, El Gobierno Vasco, Confebask y CCOO y UGT firmaron dos acuerdos sobre negociación colectiva y sobre la institucionalización del diálogo social.

Una vez más el Gobierno de Urkullu ha engañado a la clase trabajadora vasca. Aunque la denominen como un acuerdo a favor del marco vasco, en la práctica, va en la dirección opuesta, es un ataque directo al Marco Vasco de Relaciones Laborales.

No hay más que ver la andadura de los firmantes para darse cuenta de lo que esconde este acuerdo. Confebask buscaba un acuerdo para profundizar en la precariedad de la clase trabajadora vasca y lo ha conseguido.

La patronal no quiere blindar los convenios vascos, no quiere un marco propio de negociación colectiva. Al contrario, pretende utilizar la negociación colectiva para ahondar en un modelo antidemocrático de relaciones laborales y para expandir la precariedad; una vez más ha encontrado aliados para ello.

El Gobierno Vasco se ha decantado por la patronal dando la espalda a los y las trabajadoras. Ambos defienden el mismo modelo y proyecto económico neoliberal, un modelo que perpetua la precariedad y daña el desarrollo económico de nuestro pueblo. Con este acuerdo, una vez más, se evidencia la actitud de sumisión que mantiene el PNV ante Confebask.

Y qué decir de CCOO y UGT. La suya es una actitud cínica, mientras aquí se proclaman defensores de los convenios vascos, en Madrid no hacen otra cosa que atacar el marco vasco.

Decisiones antidemocráticas que nos precarizan

En sus discursos los firmantes pretenden esconder la verdadera finalidad del acuerdo. Quieren importar el modelo estatal, un modelo de relaciones laborales que precariza aun más. Un modelo de relaciones laborales que se sustenta en un abaratamiento continuo de los costes de trabajo que no trae más que graves consecuencias para la clase trabajadora, y además, hace que sea imposible construir un modelo que se sustente en la innovación y en el valor añadido.

La mayoría sindical vasca es un escollo en la consecución de sus objetivos. Una vez más la patronal pretende lograr lo que no consiguió con el intento de nuestra ilegalización, es decir, quitarse de en medio el sindicalismo de confrontación, sacando a la palestra la minoría sindical, deformando completamente la negociación colectiva, firmando convenios en minoría. La decisión de apartar a la mayoría sindical es totalmente antidemocrática y acarreará graves consecuencias. Como ejemplo destacar que la institucionalización del diálogo social llegará tras la compra a base de financiación del apoyo y la subordinación de CCOO y UGT.

Vamos a reforzar la lucha por un modelo propio

LAB se ratifica en la defensa por un marco vasco de negociación colectiva. La negociación colectiva es uno de los pilares del marco vasco de relaciones laborales y tenemos que blindarla contra la estatalización.

Apostamos por el desbloqueo de los convenios, cómo no. Pero no a cualquier precio, no con cualquier convenio. Apostamos por convenios con contenido, convenios con los que hacer frente a la precariedad y defiendan los salarios y los derechos laborales.

Nos encontramos ante un problema político que exige una respuesta de igual magnitud. Vamos a denunciar este ataque antidemocrático y a profundizando en el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social. Es hora de unir fuerzas para avanzar en este camino, es hora de unir fuerzas en defensa de un marco vasco.

En esa dirección, el 20 de septiembre, a las 10:30h y partiendo desde la Plaza Correos, nos movilizaremos en Gasteiz. ¡La clase trabajadora vasca no acepta engaños!